

Ordizian, 2011ko urriaren 27an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea


KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2011ko irailaren 29an ohiko deialdian egindako Batzordearen aktaren zirriborroa onartzea.
.....3.orr.
- 2.-2011ko urriaren 13an ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
.....3.orr.
- 3.-PSE-EEK (PSOE) aurkeztutako mozioa, San Jose Egoitzaren defizitari buruzkoa.
.....3.orr.
- 4.- Zabale Baserriko dorreko lanetarako EIOZen hobaria.
.....3.orr.
- 5.-Aparkaldi mugatua arautzen duen ordenantza aldatzea.
.....3.orr.
- 6.- IZARO INTXAUSTI ZINKUNEGIren kargua dedikazio eskusiboz onartu izanaren berri ematea.
.....3.orr.
- 7.-2012ko ekitaldirako taxien tarifak onartzea.
.....9.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

Etorritakoek esandakoak:

- .- Majori Kiroldetgia SL zerbitzu publikoen kudeaketa.
- .- Kirol instalazio eta zerbitzuetako aholkulari lanpostua
- .- 2012 urteko tasa eta prezio publikoak.


.....9.orr.

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 19,00

BUKAERA ORDUA: 20,20





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako lehen puntuaren berri eman du:

1.-2011ko irailaren 29ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko irailaren 29an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

3. puntuaren bozketan, "urte askotako kredituak onartzea" puntuan, euskarazko aktan, aldeko botoak 8 direla ipintzen duela baina benetan 7 izan zirela (BILDU eta PSE-EE(PSOE) 1) eta abstentzioetan 5 boto EAJ-PNVrenak.

Gaztelerazko aktan ondo jasota dago.

Zuzenketa egin da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

2.-2011ko urriaren 13an ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena

2011ko urriaren 13an ez-ohiko deialdian egin zen bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila



Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako akta onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hirugarren puntuaren berri eman du:

3.-PSE-EEK (PSOE) aurkeztutako mozioa, San Jose Egoitzaren defizitari buruzkoa.

Proposamena

Gizarte-zerbitzuen arloko eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak honako hau dio foru-aldundien eginkizunei buruzko 3. artikuluan:


1.- GIZA TALDE BEREZIEI ZUZENDUTAKO ZENTROAK ETA ZERBITZUAK.

Foru Aldundiek, gizarte-zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen 11.3 artikulua ematen dien eskumena betez, giza talde berezientzako zentro eta zerbitzu bereziak bermatu beharko dituzte. Aipatu zentro eta zerbitzu horiek, gizarte-zerbitzu espezializatu gisa, gizartearen premiei erantzuteko adinako edukiera izan beharko dute.

60 urtetik gorako pertsonen dagokienez, menpekotasun aitortua duten pertsonen arreta eta zainketa foru-aldundien esku egongo dira. Halaber, minusbaliotasunen bat duten eta mendekotasuna aitortua duten 0 eta 29 urte bitarteko pertsonen dagokienez, horien arreta eta zaintza ere foru-aldundien esku egongo da.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Doikuntza finantzariorako gehienezko epea. Dekretu honetan gizarte-zerbitzuen inguruan egindako eginkizunen zehaztapenaren ondorioz, eskumena duten herri-administrazioek 2002ko abenduaren 31ra bitarteko epea izango dute instituzioen artean dagokien doikuntza finantzariora egiteko, gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotakoa betez.



Gaurko egunean, Gizarte Zerbitzuen Lege berria indarrean, eta lege berri horren garapenaren inguruko negoziazioari helduta, 155 Dekretua bete gabe dago doikuntza finantzarioari dagokionez, menpekotasuna aitortua duten 60 urtetik gorako egoitzen atalean.

Horrek esan nahi du Gipuzkoan 16 udal-egoitzak 8 milioi eurotik gorako defizita dutela, eta udalok ari garelara ordaintzen gure diru-sarrera publikoekin eskumenez ez dagokigun defizit hori.

Aipatu defizit horri aurre egin beharrik izango ez bagenu, baliabide ekonomiko horiek bestelako gizarte-gaietan erabil genitzake, Ordiziako herritarrentzat lehentasunezkoak horiek ere.

Egoera horretan dago, zehazki, San Jose Egoitza. Egoitzaren pertsonako kostu erreal, 2009ko datuen arabera, 101,50 € da leku eta egun bakoitzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak 51,93 € ordaintzen du leku/eguneko erabiltzaile autonomo bakoitzeko, 63,23 € leku/eguneko menpekotasuna duen erabiltzaileko, eta 79,04 € leku/eguneko laguntza-premia handiko erabiltzaile bakoitzeko. 2009. ekitaldian arreta jaso zuten erabiltzaileen tipologiari erreparatuta, egoitza horretan batez besteko kostua leku eta egun bakoitzeko 75,23 € izan beharko luke; hortaz, bi kostuen artean dagoen aldea 12,38 € da leku eta egun bakoitzeko, alegia, gehiegizko kostua dago.


Gipuzkoako sozialistok 4 puntuko proposamena aurkeztu dugu Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Onartutakoaren arabera, foru-aldundiak proposamen zehatza aurkeztu beharko du 6 hilabeteko epean, gehienez ere, Gipuzkoako udal-egoitzen defizitaren kontu hau konpontzeko, eta ondorioetarako sortu diren batzorde politikoan eta egoitzen batzordean negoziazioari helduko zaio berriro ere. Halaber, aldundiak ahalik eta azkarren Gizarte Zerbitzuen Legeak xedatutakoa bete beharko du, eta bere gain hartu beharko ditu adinekoen egoitzak.

Alabaina, onartutakoa ez da aski, izan ere udala behartuta baitago hileroko gastu publiko handiari aurre egitera, nahiz eta legeak ez digun horretarako eskumenik aitortzen, eta hori krisi ekonomikoan, bete-betean, gauden honetan.

Egoera horrek gure udalari 2002az geroztik sortutako gastua honela banaka daiteke:

SAN JOSE EGOITZARI EGINDAKO EKARPENAK

URTEA	ZENBATEKOA	ITZULKETA	GUZTIRA
2002	213.528,80		213.528,80
2003	221.095,72	- 8.938,273	137.157,55
2004	277.752,00	-12.765,81	264.986,19
2005	400.000,00	-55.284,79	344.715,21
2006	360.000,00	6.190,25	366.190,25
2007	360.000,00	4.657,35	364.657,35
2008	433.764,75		433.764,75
2009	365.559,00	-130.961,32	234.597,68
2010	426.546,00	-32.240,78	394.305,22
2011	300.402,00		



Denetara, 2.753.903 € zerbitzu hori foru-aldundiaren eskumenekoa denetik. 3.000.000 euro baino gehiago aurtengo aurreikuspenei erreparatzen badiegu.

Pentsa al dezakezue udal honek zer egin lezakeen urtero batez beste 300.000 euro balitu gastu arruntetarako, edo zorra murrizteko, edo egokiena iruditzen zaizuenerako? Etxez etxeko laguntza hobetu, edo adingabeko pertsonetikiko gizarte eta hezkuntza esku-hartzea hobetu, edo enpleguaren arlo hobetu, edo...

Ordiziako Udalak, aurreko legealdian, EUDELen batzorde bat eratzea bultzatu genuen, foru-aldundiak ordaintzen duenaren eta menpekotasuna duten pertsona helduei arreta egiteak benetan duen kostuaren arteko defizita bere gain hartzen duten 16 udal-egoitzek gai horri buruz eztabaida zezaten. EUDELe txosten teknikoa aurkeztu zuen arazoari hainbat irtenbide emate aldera.

Aipatutako guztiagatik, PSE-EE udal-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Lehena.-Ordiziako osoko bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiak legeak emandako eskumena bere gain ez hartzearen ondorioz udalak pairatzen duen egoera onartezina, eta, horrez gain, aldundiak erabiltzaile bakoitzeko eta eguneko kostu erreala ez ordaintzea salatzen du.

Bigarrena.-Ordiziako osoko bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundia premiatzen du gehienez ere bi hileko epean San Jose egoitzak duen defizita estaltzeko adinako partida ekonomikoa bidera dezan.

Hirugarrena.- Ordiziako osoko bilkurak udal-gobernua premiatzen du foru-aldundiak San Jose egoitzaren defizita estali ondoren, kopuru hori gizarte-gastuetarako erabil dezan, eta lehentasunezko gizarte-arloak alderdi politikoekin adostu ditzala.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Dubreuil jn.

Foru Aldundiak bere eskumenak ez baditu bere gain hartzen, horrek defizit handia ekartzen duela esan du, eta urtez urte handitzen doala, 2001 urtetik 213.528,50 €ko ekarpena, eta 2011 urtera udal ekarpena 394.305,33 €koa izan da, ia bikoitza.

Datuak argiak eta agerikoak dira.

Mozioa aurkeztu dute, aurreko legealdian ere Aldundian presioa egin bazuten ere, dagokion erantzukizuna har dezan, presioa egiten jarraitu behar dela uste dutelako.

Lanean ari direla badaki.



Maiza and.

Mozioaren oinarriekin bat egiten duela esan du, baina ez du ulertzen zergatik aurreko legealdian ez zuten horrelako moziorik atera; PNVk gobernatu zuenean Foru Aldundian aurrekontuetan PSOEn laguntza izanda.

Adierazi du BILDUK ez duela mozioak finkatzen dituen neurriak onartu edo proposatuko.

Bere taldeak mozioaren aurka zergatik bozkatuko duen azaldu du, eta kontrako botoa azaltzeko adierazpen bat irakurri du:

Euskadiko sozialisten udal taldeak jaso duen bezala, 155/2001 Dekretuak


bere lehenengo xedapen iragankorreak finantza-doikuntza egiteko gehienezko epea ezartzen zuen, honakoa zehaztuz: "herri administrazio eskudunek 2002ko abenduaren 31ra arteko epea izango dute instituzioen artean finantzaketa banatzeko, gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera."

Dekretu hau EHAAn argitaratu zenetik hamar urte igaro dira (2001-08-27), eta data honetatik aurrera zenbatzen hasita lau legealdi igaro dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko agintean BILDU dagoen legealdi hau kontuan hartu gabe, agintea EAJ_PNVren eskuetan egon da beti orain arte, eta PSEren berariazko laguntza izan du aurrekontuak onartzean. Orain arte, igarotako denbora guztian zehar, dirudienez, ez dio araudia betetzeko eskatu, Foru Aldundiko gaur egungo korporazioari eskatzen dion bezala. Gainera, kontuan izan behar da, berariaz indargabetutako lege batetik eratorri dela dekretua.

Gaur egun, Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legeak honakoa zehazten du: "Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean ekingo diote lege honetan ezarritako eskumenen banaketa benetan gauzatzeari.", eta "lege honetan egiten den eskumen-banaketa onduz, beharrezko finantza-doiketa egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen artean, 22. artikuluan aurreikusita dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa autonomia-, foru- eta udal-mailan hornitzeko finantzaketa nahikorik bermatzeko" "Eskumen-banaketa horrek eta finantza-doiketa horrek ez du ekarri ahal izango, inola ere, legea indarrean jartzean zeuden prestazio eta zerbitzuen intentsitate- eta estaldura-mailak jaistea." Hau da, bi urte igaro dira eskumenen banaketa eta finantza-doikuntza eginda egon behar zuenetik eta oraindik egin gabe dago. Gogora ekarri behar dugu 2009az geroztik Alderdi Sozialista dagoela Eusko Jaurlaritzako buru, eta han ere ez dela egin, eta gure ustez ezin zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernu talde berriari egotzi araua ez betetzea, nahiz eta orain egoera honi erantzuna emateko erantzukizuna hartu behar duen.

Horregatik guztiagatik, Ordiziako BILDUK, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatuko dio, sei hilabeteko epean, gaur egungo udal eta foru gizarte zerbitzuak berrantolatzeko eta berfinantzatzeko proposamena aurkeztu dezala, zaharren egoitzak kudeatzen dituzten udalei arreta berezia eskainiz, eta ukitutako Udalekin elkarriketa prozesu bati hasiera ematea.

Maiza andreak azaldu du Foru Aldundiko arduradunekin bilera izan duela eta hitz emandakoa beteko dutela espero duela, eta 2012 urtean zehar gaia bideratuko dutela, eta beraz, kontra bozkatuko duela.



Gogorarazi du 2009 urtetik Eusko Jaurlaritzan dagoela alderdi sozialista, eta bere ustez, Aldundiko gaur egungo gobernu taldea (BILDU) ez da egoera honen erruduna, nahiz eta horri aurre egin behar izan.

Dubreuil jn.

Ez du esan nahi izan BILDUren gaur egungo gobernu-taldea denik erruduna, badaki aurreko legealdian nork gobernatu duen Aldundian (EA eta PNV), baina sozialistak Eusko Jaurlaritzan daudenetik gizarte zerbitzuetan eta zerbitzuen eskaintzan lan handiagoa egin dela uste du, baina lana luzea eta motela dela uste du.

BILDUri eta Udalari eskatzen dio, aldi berean hauek eska edo exijitu dezatela, berdin zaio zein hitz erabiltzen den horretarako, Foru Aldundiak dagokion kopurua ordaintzeko eta horretarako dirua bideratzeko.

Maiza and.

Erantzun dio esanez Dubreuilak eskatzen duenaren inguruan jarrera bera dutela eta lanean jarraituko dutela.

Santamaria jna.

Aldundian azkeneko urteetan PNVk eta EAK gobernatu dutela onartu du baina hala ere Aldundiari eskatu zaiola egoitzei dagokienez dagozkion eskumenak bere gain hartzeko.

Nahi dugun egoitza eredia zehaztu behar dela adierazi du.

EUDELeK egoitza zeukaten udalerrri guztiekin lan-mahai edo plataforma bat osatu zuen, gaia aztertu eta eztabaidatzeko eta irtenbide bat bilatzeko.

Aipatutako lan-mahaia berriro osatzeko eskaera egingo du. Bere ustez Aldundiari erantzukizunak bere gain hartzeko eskatzen jarraitu behar da, eta ahal den neurrian urteroko aurrekontu partidetan egoerari aurre egiteko diru-kopuru bat bideratzeko eskaera egin behar zaio.

Maiza and.


Eskaera eta hausnarketa horiek guztiak mahai gainean banaka aztertu behar direla uste du.

Dubreuil jn.

Mozioan azaltzen diren zenbait kontzeptu aldatzeko trabarik ez du, Udalaren talde guztien artean erabaki beharrekoa dela uste baitu.

Maiza and.

Mozioaren aurkako bere botoa azaldu duela esan du eta Foru Aldundiari epe jakin bat utzi nahi diola aurretik adierazitakoa bideratzeko.



Santamaria jna.

Esan du ez litzatekeela kontramozioa adosten den aurreneko aldia izango.

Alkate jn.

Dubreuiliek eta Santamaria jaunek esaten dutenarekin ados dagoela adierazi du, baina uste du mozioan azaltzen diren epeak ez direla errealak.

Mozioa aurkeztu duten bezala bozkatu beharko litzatekeela uste du. Mozioa adosteko epe bat finkatu beharko litzatekeela uste du, guztion artean mozio bat prestatzeko.

Maiza and.

Mozioan nagusitzen den presa eta beligerantzia ez zaizkio egokiak iruditzen. Zentzudun izan beharra dago eta denbora eman. Dubreuil jaunak horretan lanean ari direla badakiela eta Aldundian egon dela uste du. Guztia dago mahai gainean eta ahalik eta azkarren emango zaio irtenbidea.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 1 (PSE-EE (PSOE))

Kontrako botoak: 7 (BILDU 7)

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

4.-Zabale baserriko obretan EIOZen hobaria aplikatzea.

Proposamena

2011ko ekainaren 8ko osoko bilkuraren akordioaren berri ematen da, Zabale baserria berritzeko obra interes berezikotzat jotzen da bertan, Eraikuntza, Instalazio eta Obretako Zergen uztailaren 5eko 15/1989 Foru Araueko 5.1.a) artikulua arabera eta Arau hori aldatzen duen Tokiko Sistema Tributarioa berritzen duen martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauaren arabera. Ezaugarri historiko-artistiko bereziak ditu aipatutako baserriak, Donajakue bidearen ondoan dago eraikina, eta kultur-ondare izendatu zuten, Monumentu Multzo kategorian.

Aurrekoa kontuan izanda EIOZren %95eko hobaria aplikatzeko prozedura martxan ipini zen, eta hobaria, baserriko dorrean egindako obrei soilik aplikatzen zitzaien.



Jabeekin izandako bilera kontuan izanda eta baserri osoa interes berezikoa dela eta Multzoa osatzen duela adierazten duen espedienteari erantsitako agiriak kontuan izanda.

2011ko urriaren 19ko osoko bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpena kontuan izanda, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

*** 2011ko ekainaren 8ko osoko bilkuran hartutako erabakia zabaltzea, eta Eraikuntza, Obra eta Instalazioen %95eko hobaria Zabale Baserrian egindako obra-multzoari aplikatzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

2011ko ekainaren 8an osoko bilkuran hartutako erabakiaren berri eman du, zehaztutako obretako zergetan %95eko hobaria aplikatzeari buruzkoa izan zena, baina soilik dorreari zegokion hobaria.

Bertaratutakoei jabeekin izandako bileren berri eman die, eta Jabetza Eskriturek diotenaren berri, eraikinaren osotasunaren katalogazioa eta obrak egiteko Aldundiak ezarritako baldintzak ere azaldu ditu.

Obrei osotasunean hobaria aplikatzea dela bidezkoena, hori erabaki da. Gutxi gorabehera 8000 €ko aldea dakar horrek.

Santamaria jna.

Proposamen berriaz pozten da, bere taldea obra guztian hobaria aplikatzearen aldekoa baita, beraz, babesa emango dio proposamenari.

Dubreuil jn.

Bere taldeak aurreko erabakia babestu zuela azaldu du, katalogatutako zatia dorrea zela eta hobaria ere dorreari zegokiola uste zutelako, baina emandako azalpenen ondorioz proposamen berria onartuko duela adierazi du.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7,EAJ/PNV 5., PSE-EE(PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



5.-Aparkaldi mugatua arautzen duen ordenantza aldatzea.

Proposamena

Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantzaren 3. artikuluan aparkaleku mota honentzako plaza kopuruak eta kaleak zehazten dira, eta ibilgailuak gehienez ordubete aparkatzeko baimena ematen du.

Udaltzainburuaren txostenak diona jakinarazten da era berean. Mota honetako aparkalekuak Joseba Rezola etorbidean ipintzea komeni dela adierazten du, bidegorria egin ondoren aparkaleku batzuk kendu baitira.

Aipatutako Ordenantzaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, osoko bilkuraren akordio bidez eta Ordenantza aldatzeko egin behar izaten diren tramiteetara jotzeko beharra izan gabe, aldeztu aurretik dagozkion txosten teknikoak izanda, egunak eta orduak aldatu ahal izango dira, baita Ordenantzan zehaztutako kaleak ere, eta aparkaldi mugatuko eremua aldatu.

2011ko urriaren 14ko Zerbitzu Delegazioaren oniritziarekin eta 2011ko urriaren 19ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

* Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantza aldatzea, eta 3. artikuluan aparkaldi mugatuko beste eremu bat eranstea, Joseba Rezola etorbidekoa, 31 plaza kopuruarekin.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jna.

Asenjo jaunari eman dio hitza.

Asenjo jn.

Bidegorriko obrak egitearekin batera Joseba Rezola etorbidean aparkaleku pila bat desagertzen dela azaldu du, zehazki 25 aparkaleku.



Eremu urdineko aparkaleku batzuk zergatik behar diren ere azaldu du, gelditzeko ordu erdiko muga izango lukete, eta esan du inola ere ez duela dirurik biltzeko helbururik. Izan ere, ordenantzak berak finkatzen du ez dela hor aparkatzeagatik dirurik kobratuko.

Santamaria jna.

Filosofiarekin bat egiten du baina proposamenari buruzko zalantza batzuk ditu.

Ez daki zergatik aldatu den proiektua.

Ez du neurri honek duen presa ulertzen eta ez zaio ondo iruditu inguruko bizilagunekin eta merkatariekin hitz egin ez izana.

Ez dute gaiaz eztabaidatu Agenda XXI foroan, mugikortasunarekin lotutako gaia izanik, eta ordu erdiko muga handitu beharko litzatekeela uste du, ordenantzak berak ere gehienezko muga ordu beten duenean.

Denbora gehiago behar dela uste du eta ordu erdi gutxi dela.

Horregatik merkatariekin hitz egin beharko litzateke.

Asenjo jn.

25 aparkaleku kentzeak arazoak ekarri dituela adierazi du baina lehentasuna eman zaiola segurtasunari. Bateria aparkatzeko tokiak zeuden eta horiek bidegorria egin eta gero uztea arriskutsua dela adierazi du autoen mugikortasunerako.

Presari dagokionez berriz, Santamaria jaunari erantzun dio esanez gaia Osoko bilkurarako Gaien Batzordean aztertu zutela.

Hain zuzen ere, neurria inguruko bizilagunengan pentsatuz hartu da. Asko etxera joaten da bazkaltzera eta horretarako eremu bat gordetzen da, aparkalekuak egun guztian zehar okupatuz. Gaia ez da Agenda XXleko foroan aztertu, ez zelako agenda XXleko gaien artean sartzen, bai aztertu da "irisgarritasunaren" gaia, eta eremuko bizilagunek egiten zuten balorazioaren arabera neurria hartu da.

Autoa gelditzeko ordu erdiko mugari dagokionez, berak uste du lan handiagoa egin behar dela ordu betera zabaltzeko aukera aztertzeko, eta horrekin batera TAO ipintzeko. Ez diote horri ezetz esaten.


Santamaria jna.

Presaz hitz egin duenean ez zuen prozeduraren presaz hitz egiten, baizik eta merkatarien eta herritarren iritzia jasotzeko prozedurarik ez dela bideratu, hori argitu nahi izan du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)



Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako seigarren puntuaren berri eman du.

6.- IZARO INTXAUSTI ZINKUNEGIren kargua dedikazio eskusiboz onartu izanaren berri ematea.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.-2012ko ekitaldirako taxien tarifak onartzea.

Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2012ko tarifak berrikustea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:


2012ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,2544	1,0188	19,4602
TARIFA 2**	3,2544	1,6249	30,5851
TARIFA 3***	3,3521	1,6736	31,5027

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan.

*** Ezartze ordutegia: Ostiraleko 22:00tik, larunbateko 7:00ak arte. Larunbateko 22:00tik, igandeko 7:00ak arte. Jaieguna edo patroijai bezpera 22:00tik, Patroijai edo jai egunetako 7ak arte. Patriojai edo jaiegunako 22:00tik, hurrengo eguneko 7:00ak arte.

AGITAXek tarifen igoera justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik



Herri barruko gaurko dauden tarifak, 2011ko urriaren 29an Udalbatzarrak onartuak hauek dira:

2011ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,1658	0,9911	18,9302
TARIFA 2**	3,1658	1,5806	29,7521

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Onartzea 2012ko auto-taxien tarifa aldatzea, esposizio-atalean esandakoaren arabera.

2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea..

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

2012 urteko taxi tarifen proposamenari buruzko informazioa eman du, eta jakinarazi du tarifa berri bat sartu dela, 5. tarifa, eta zerbitzua eskaintzeko ordu zailenei dagokiela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5., PSE-EE(PSOE) 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



8.-Galde-eskeak.

- Alkate jaunak esan du, ETaren azkeneko adierazpenaren ondorioz sortu den egoera politiko berria dela eta, Intsausti andreak adierazpen bat irakurriko duela BILDUren izenean:

“Euskal Herria garai historiko berri baten atarian sartu berri da. Azken bi urteetan Euskal Herrian eman diren aldaketa político eta sozialerako prozesuaren ondorioz ireki den egoera berriak, pasa den steko Nazioarteko Konferentzian islatu zen atzerriko adituen inplikazioak eta ETAk ostegunean zabaldu zuen erabakiak ilusioa eta itxaropena ekarri dio Euskal Herri Osoari. Hamarkada luzeetako borroka armatuaren aroa amaitu da. Herri gisa garai historiko berria aboatzera goaz.

Aipaturiko Nazioarteko konferentziak ebatzitako bost puntuen bitartez, Euskal Herrian gatazkaren behin betikoa eta integrala izango den konponbide baterako ibilbide orria zehartua dugu. ETAk hartutako erabakiak konfrontazio armatua behin betikoz amaitzea dakar eta konfrontazio horrek sortu dituen ondorioei buruzko elkarrizketari ekiteko garaia iritsi da.

Urte luzeetako gatazkak sufrimendu handia eragin du. Oraindik ere gatazkaren ondorio ugari bere horretan diraute. Lehen bai lehen horiei heltzea ta gure herrian normalizazioa, errekonziliazioa eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako bakea eskuratzea atzera ezinezko lana da.


Euskal Herria garai historiko berri baten atarian sartu berri da. Azken bi urteetan Euskal Herrian eman diren aldaketa político eta sozialerako prozesuaren ondorioz ireki den egoera berriak, pasa den asteko Nazioarteko Konferentzian islatu zen atzerriko adituen inplikazioak eta ETAk ostegunean zabaldu zuen erabakiak ilusioa eta itxaropena ekarri dio Euskal Herri osoari. Hamarkada luzeetako borroka armatuaren aroa amaitu da. Herri gisa garai historiko berria abiatzera goaz.

Aipaturiko Nazioarteko konferentziak ebatzitako bost puntuen bitartez, Euskal Herrian gatazkaren behin betikoa eta integrala izango den konponbide baterako ibilbide orria zehaztua dugu. ETAk hartutako erabakiak konfrontazio armatua behin betikoz amaitzea dakar eta konfrontazio horrek sortu dituen ondorioei buruzko elkarrizketari ekiteko garaia iritsi da.

Urte luzeetako gatazkak sufrimendu handia eragin du. Oraindik ere gatazkaren ondorio ugari bere horretan diraute. Lehen bai lehen horiei heltzea eta gure herrian normalizazioa, errekonziliazioa eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako bakea eskuratzea atzera ezinezko lana da.

Nazioarteko Konferentziak esandakoari jarraituz, gatazkak sortutako ondorioen gainditzea beharrezkoa izango da. Gizarte osoak berea sentituko duen behin betiko bakea lortzeko beharrezkoak diren oinarriak jartzeko Euskal Herriko eragile askoren babesa duen Gernikako Akordioak exijitzen dituen neurri guztiak betetzea beharrezkoa da.

ETaren erabakiak Euskal Herriko eta munduko eragile asko eta askoren balorazio baikorra eragin du. Euskal Herrian eta nazioarteko komunitatean sortu den egoera baliatu eta gatazkaren ondorioei helduko dien elkarrizketari ekiteko deia luzatu nahi diegu Estatu frantziarrek zein espainiako gobernuei. Arduraz



jokatu dezatela, dagokien neurrian aritu daitezela, inoiz egon ez den aukera historikoa denbora galdu gabe baliatu dezatela.

Edonola ere, ETArek erabakiak ez du gure herrian dagoen gatazka politikoa desagerraraziko. Euskal Herria, herri bezala aitortua izatea eta bere etorkizuna libreki erabaki ahal izatea soilik bermatu dezake behin betiko konponbide politikoaren gainditzea.

Gure Herrian nazio identitate edota ikusmolde ezberdinetako herritarrak bizi dira. Horiek ordezkatzeko dituzten alderdi ezberdinak ere badira gurean. Denok gara Euskal herritarrak, denoi dagokigu irekitako prozesuan parte hartzea, denok dugu eskubidea eta bete beharra gure seme alabei bestelako etorkizuna eskaintzeko, proiektu politiko guztiei ateak irekitzeko. Beraz, iritsi da ordua ere elkarrizketa politikoari ekiteko, eragile eta alderdi politikoei dagokien negoziazio politikoa abiatzeko.

Abiatu beharreko elkarrizketak bazterketa, beto eta mugarik gabekoa behar du izan. Indar politiko guztiak berdintasunezko baldintzetan aritzeko aukera eta eskubidea bermatuko behar da. Guztion arteko konponbidea behar dugulako, guztion parte hartzea ahalbideratu beharra dago.

Eta elkarrizketa politikoa baldintzarik gabekoa beharko luke. Edo hobe esanda, baldintza bakarra izango duena: Euskal eragileek gatazka politikoaren oinarrian dauden arazo politikoei bilatu beharko dioten aterabide politikoa denok defendatu eta errespetatu araziko dugula.

Edonola ere, azken hitza herritarren esku utzi beharra dugu, horixe baita eta ez besterik demokrazian oinarritutako bakea eraikitzea. Erdietsi behar dugun akordioaren inguruan, herritarrei galdetzea, askatasunari, demokraziari eta gatazkaren behin betiko konponbide politikoari egin diezaiekegun ekarpenik handiena da. Udalak herritarrengatik hurbilen dauden instituzioak izaki oso ondo dakigu zein garrantzitsua den herritarrekin aritzea, euren babesa eta sostengua eskuratzea.


Azken bi urteetan garatzen hasi den prozesu politikoak aro historikoa ireki duen bezalaxe, ardurak historikoa dugu eragileok aukera hau arduraz baliatu eta bururaino eramateko. Alderdi politikoek bezalaxe, instituzioek, kasu honetan udalek, gure esku dagoen guztian egin beharko dugu irekitako aukera historikoa behar bezala baliatzeko. Udal honetan eta aipatu norabidean lan egiteko konpromisoa hartu nahi dugu beraz.

Amaitzeko deialdi zabal bat luzatu nahi diegu herritarrei, irekitako prozesua bultzatu, babestu eta sostengatu dezaten. Bakea, demokrazia eta askatasunera eramango gaituen itsasontziak herritarren parte hartze eta bultzada beharrezkoa ditu portu onera iristeko. Bultzatu dezagun beraz denok aterabide demokratikoaren norabidean”.

.....

.- Mikel Leunda jauna azaldu da bilkurara eta aurreko bilkuran ere gobernu talde berriak egindako gonbidapena eskertu zuela esan du. Gonbidapena eskertuta, iritzia emango duela adierazi du, eta kritika egin hala egokitzen bada, Udalean lantzen diren gaietaz buruz.

Gaurkoan hiru gairi buruz hitz egin nahi du:



1.-Majori Kiroldedia SL zerbitzu publikoen kudeaketa.

Gaia aztertzeko unerik egokiena dela uste du eta behin-behinean bideratu den 6 hilabeteko kontratazioa egin eta gero, zerbitzuaren kudeaketa zuzenaren aukera aztertu beharko litzatekeela uste du.

Egiturazko postu guztiak udal elkarteko plantillakoak izan beharko liratekeela uste du.

Ez du uste zerbitzu desberdinen azpikontratazio bidez egindako kudeaketa zuzena denik egokiena.

2.- Kirol Zerbitzu eta Instalazio Aholkulari lanpostuari dagokionez, konfidantzazko aholkulari edo karguak ahalik eta gutxien erabili behar direla uste du.

Gaur egungo kirol teknikariak (Odilo Rivelak), Kirol arloko Zinegotziaren zuzendaritza politikoaekin egin behar den lana ederki egingo lukeela pentsatzen du.

Beti entzun du kirol teknikari lanpostuari etekin gutxi atera zaiola.

Ez daki zergatik ezin duen Odilo Rivelak izendatuko den aholkulariaren funtzioak egin, ez du honekin esan nahi izan izendatuko den pertsonak lan hori egiteko gaitasunik ez duenik.

3.- 2012 urteko tasa eta prezio publikoak onartu dira, honi buruz jakin du kide anitzeko familietan OHZren hobaria aplikatzean progresibitatearen irizpidea jarraitu dela, hori eskertzen du eta gobernu talde berria zoriondu nahi izan du hartutako neurriagatik.

Kirol zerbitzuak erabiltzeagatik ordaintzen den prezioarekin berdin jokatu beharko litzateke, beharbada teknikoki zailagoa da, baina progresibitatearen irizpidea aplikatzea justuagoa da.

Alkate jaunak erantzun dio, Majoriren kudeaketari dagokionez, ez diola aterik ixten kudeaketa zuzenari bertako langileak plantillan sartuz, baina oraingoz aldaketa garai honetan hartutako neurria izan dela modurik egokiena. Berritoki esan du ez duela bestea baztertzen etorkizunerako.


Hala ere, oraingoz lantzen ari diren ideia kudeaketa zuzenarena eta azpikontratutako zerbitzuena da.

Kirol teknikariari dagokionez, une hauetan lan tekniko garrantzitsu bat burutzen ari dela jakinarazi dio, eta aholkulariak dituen funtzioekin alderatuta lan desberdinak egiten dituela.

Azken urteotako esperientziak erakutsi digu kiroldegiak arazoak izan dituela kudeaketa arloan, arrazoiak arrazoi, eta bere ustez oraingoa da kudeaketa ongi aztertzeko garaia etorkizunean horrelako egoerak saihesteko.

Leunda jaunak uste du udal elkarteak egindako langileen subrogazioa ere aztertu beharrekoa dela.

Santamaria jaunak kide anitzeko familientzako OHZren hobariari buruz Leunda jaunari erantzun dio esanez hobarian progresibitatearen irizpidea sartuta hobaria murrizgarriago bihurtzen dela, pertsona gehiagok atera dezakete etekina eta beraz, bere iritziz, ez da hain neurri justua izango.



Leunda jaunak berriro adierazi du gobernu talde berriak progresibitatearen inguruan hartutako neurria egokia dela.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.